



..... Vitoria-Gasteiz

HOBETUZ

VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ PROGRAMAREN ESPARRU-ARAUTEGIA.

Gasteizko Udalaren **Herritarren Parte-hartzerako Udal Plana** udalbatzako talde politiko guztiek onartu zuten, eta 2020-2023 legealdirako bide-orria ezartzen du. Planak barne hartzen dituen ekintzen artean, Vitoria-Gasteiz Hobetuz programarako esparru-arautegi bat egitea aurreikusten da.

Zer da Vitoria-Gasteiz Hobetuz programa?

Vitoria-Gasteiz Hobetuz (VGH) hiriko partaidetza eta kudeaketarako tresna bat da, eta, haren bidez, herritarrek udal-baliabideen zati baten xedea proposatu eta erabaki dezakete. Demokrazia zuzenerako tresna bat da.

Zergatik programa hau?

- Herritarren parte-hartzea legez aitortutako eskubide bat delako. Eta herritarrek “eskubide” hori erabili nahi dute publikoa denaren kudeaketan aktiboki eta zuzenean erabaki eta parte hartu ahal izateko.
- Herritarrek hiria eta auzoak ondo ezagutzen dituztelako, eta “esperientzia eta ezagutza” horretaz baliatzea ezinbestekoa delako politika publiko hobekuntzetan parte hartu eta erantzukide izan daitezen; izan ere, herritarrek kudeaketa publikoan parte hartzea funtsezkoa da erakunde publikoen kalitate demokratikoaren garapenean. Talde politiko guztiek onartutako **Herritarren Parte-hartzerako Udal Planak (2020-2023)** asmo hori jasotzen du herritarren parte-hartzerako bideei eta tresnei buruzko 2. ildoan.

Zertarako programa hau?

- Gasteizko bizilagunen parte-hartze zuzena sustatzeko, haien proposamenak jaso eta urteko udal-aurrekontuetan sartzeko helburuarekin. Bozketa bidez, herritarrek garrantzitsu edo interesgarritzat jotzen dituztenak lehenetsiko dituzte. Lortutako konpromisoen jarraipena egingo da.
- Herritarrak gertaeren eta erabakien behatzaile hutsak izan ez daitezela eta hirian gertatzen denaren protagonista aktibo bihurtu daitezela bultzatzeko, demokrazia parte-hartzailean sakonduz.
- Hausnarketa aktiboa eta elkartasuna sustatzeko, herritarrek gainerakoen arazoak eta eskabideak ezagutzeko eta horiei buruz hitz egiteko aukera dutelako.

- Administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko, ordezkari politikoan, kolektiboan, herritarren eta teknikarien arteko elkarrizketa-guneak sortuz.

Programaren printzipioak

- **Inklusibitatea:** parte hartu nahi duten pertsona guztiek (banaka edo taldeka) parte hartzeko eta erabakiak hartzeko aukera izan dezatela.
- **Intentsitatea:** parte-hartzea informazioa eta iritzia bakarrik izan ez daitezela, hau da, parte hartzen duten pertsonak garrantzitsuz jotzen dutenaz hitz egiteko, eztabaidatzeko eta prozesuan zehar ikasteko aukera izan dezatela.
- **Eragina:** ez da parte hartzen iritzia emateko edo kontsultatzeko bakarrik; herritarrek hartzen dituzte erabakiak, eta haien erabakiak lotesleak dira. Eragina dute udal-aurrekontuan.
- **Aniztasuna:** kualitatiboki, alderdi kuantitatiboak baino lehentasun handiagoa du herritarren iritzia eta proposamenak jasotzeak.
- **Aukera-berdintasuna:** baldintza egokiak sortzea, hala, pertsona guztiek beren iritzia adierazteko aukera dutela eta ekarpen guztiak errespetuz jorratzen direla senti dezaten.
- **Genero-ikuspegia:** herritarrek aurkeztu eta bozkatutako proposamenak genero-ikuspegitik aztertzea. Genero-berdintasunean oinarritutako bizikidetzaz errazten duten proposamenak haztatzea. Hizkuntza ez-sexista sustatzea.
- **Hurbiltasuna:** herritarren eta Udalaren arteko hurbiltasun- eta konfiantza-harremanak sustatzeko balio behar du.
- **Erraztasuna:** erabilitako baliabideek (hizkuntzak, komunikazio-euskarriak eta abar) ahalik eta ulergarrienak izan behar dute, eta hainbat kolektibori egokituta egon behar dute.
- **Lankidetzaz:** Udalaren eta herritarren arteko lankidetzaz-puntuak irekitzea.
- **Ikaskuntza:** parte-hartze prozesua bera aukera bat da parte hartzen duten herritarrek Udalaren funtzionamenduari buruzko informazio gehiago izan dezaten.

PROZESUAREN FASEAK

1. Diseinua eta plangintza.
2. Proposamenak.
3. Proposamenen azterketa. Bideragarritasuna.
4. Proiektuen aurkezpena.
5. Proiektuen hautaketa. Bozketak.
6. Prozesuaren balorazioa.
7. Proiektuen jarraipena.

Vitoria-Gasteiz Hobetuz programaren faseei buruzko informazioa Udalaren web-orrian argitaratuko da, eta udal-kanalen bidez jakinaraziko da: prentsa-oharrak, sare sozialak (Twitter) eta beste komunikabide batzuk (irratia, prentsa idatzia eta abar).

1. Diseinua eta plangintza

A) Aurrekontuko partida.

- 2022-2023 edizio berrirako proposamena: 3 milioi euro bi urteetarako. 200.000 €-ko erreserba Vitoria-Gasteiz Hobetuz Txiki: haurrek AktibaTU programaren bidez sustatutako proposamenak.

B) Lantaldeen antolakuntza.

Prozesua Herritarren Parte-hartzearen Zerbitzuak koordinatuko du. Gainera, honako lantalde hauek sortuko dira, funtzio zehatzak izango dituztenak:

Talde eragile teknikoa

Talde eragile teknikoa honako zerbitzu eta/edo sail hauetako teknikariek osatuko dute:

- Herritarren parte-hartzea
- Edukiak
- Informatika
- Komunikazioa

Gizarte Kontseilua

Funtzioak:

- Programari buruzko informazioa izatea eta haren jarraipena egitea.

Sailarteko talde teknikoa

Talde hau udal-sail guztiek osatuko dute. Vitoria-Gasteiz Hobetuz programa Udalaren partaidetza-programa bat da, eta zerbitzu eta sail guztiei eragiten die. Dena den, herritarren partaidetza-zerbitzua arduratzen da hura koordinatzeaz.

Haztapen-irizpideen mahaia

Haztapen-irizpideak zehazten lagunduko duten udal-teknikariek osatuko dute taldea.

Zerbitzuak/Sailak:

- Herritarren partaidetza
- Bizikidetzak eta Aniztasuna
- Gizarte Politikak (adineko pertsonak eta haurrak, gizarte-inklusioa)
- Berdintasuna
- Ingurumena
- Udal-administrazioa eta eraldaketa digitala

Lan politikorako mahaia

Lan politikorako mahaiak Vitoria-Gasteiz Hobetuz programa sustatu eta haren jarraipena egiten du.

C) Informazioa eta komunikazioa, sentsibilizazioa, hedapena.

Eudel Gidan ([Nola egin kalitateko partaidetza-prozesua?](#)) jasotzen den moduan, oso garrantzitsua da informazioa argia, benetakoa eta herritar guztiek ulertzeko modukoa izatea.

Zentzu horretan, komunikazioak, elebiduna izateaz gain (euskara-gaztelania), askotarikoa izan behar du eta udalerriko errealitate soziodemografikoari erantzun behar dio, herritar orok parte hartzeko deia senti dezaten. Udalerriko herritar batzuen artean ohikoak diren beste hizkuntza batzuk erabiltzea planteatuko da, hala nola arabiera, ingelesa, frantsesa eta urdua.

Hainbat informazio-une egongo dira, prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren. Oso garrantzitsua da honako informazio hau ematea: partaidetza-prozesuaren arrazoiak, helburuak, nork parte hartzen duen, mugak, jokoaren arauak eta prozesuaren itzulera edo jarraipena.

Informazio-kanalek gertukoak eta irisgarriak izan behar dute, kolektiboegi egokituta egon behar dute. Partaidetza-prozesuei dagokienez, bibliografian erronka gisa adierazten da parte hartzera deituak sentitzen ez diren herritarrengana iristea: adineko, emakume, gazte, haur, migratzaile eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonengana. Gainera, hori da herritarren parte-hartzerako udal-planaren konpromisoetako bat.

Parte-hartzearen oinarria informazioa da: zer egiten den, zergatik eta zertarako jakitea. Eta, informazio hori eskuratu ondoren, parte hartu ahal izatea.

Gasteizko Udalak udal-zerbitzuetatik zer egiten duen jakiteko, hala nahi duenak “[Hitzordua](#)” eskatu ahal izango du [HEI](#) bidez, herritartasunerako eskola irekia.

Erabilitako hizkuntzari dagokionez, hizkuntza inklusiboa izango da, [Instrukzioa: generoa eta euskararen erabilera egokia](#) dokumentuak zehazten duen moduan, pertsona guztiak barne hartzen dituen hizkuntza bat lortze aldera.

2. Herritarren proposamenak

Egiteko konpromisoa.

Udalak boto gehien jaso dituzten ekimenak gauzatzeko konpromiso politikoa hartu du, aurrekontua agortu arte.

Proposamenen eskumena.

Proposamenek udal-eskumenekoak izan behar dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko baten (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza edo beste udal batzuk) eskumeneko proposamenak jasotzen badira, Udalak administrazio horietara bideratu beharko ditu, eta hala jakinaraziko die ekimena aurkeztu duten pertsoneri.

Interesa.

Aurkeztutako proposamenek interes orokorrekoak izan behar dute, ez interes pribatukoak.

Lurralde-eremua.

Gasteizko udal-mugartera mugatzen diren proposamenak aurkeztu ahal izango dira, udalerrian dauden 63 [toki-erakunde txikiak](#) barne ([mapa](#)).

Zeri buruzko proposamenak egin daitezke?

Inbertsioei (aurrekontuko 6. kapitulua) nahiz programei (aurrekontuko 2. kapitulua) buruzko proposamenak egin daitezke.

A) Inbertsioak (6. kapitulua):

A.1) Bide publikoko inbertsioak: bide publikoko obrak dira, berriak nahiz lehendik zeudenak mantentzekoak, lorategi bat eraikitzea edo kaleak hobetzea, adibidez.

A.2) Bide publikoko jarduketekin lotuta ez dauden inbertsioak: esaterako, herritar guztientzako sarrera libreka duten udal-eraikin edo -instalazioetako jarduketak, horiek erabiltzeko eta horietara sartzeko ordainketarik egin behar ez denean.

B) Programak (2. kapitulua): programak, jarduerak, zerbitzuak, kanpainak eta abar. **Organigrama**

- Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Gizarte Etxeak
- Hezkuntza eta Kultura
- Euskara
- Kirola eta Osasuna
- Berdintasuna
- Gazteria
- Bizikidetzak eta Aniztasuna
- Gizarte-politikak, adinekoak eta haurrak
- Garapenean laguntzeko zerbitzua
- Ekonomia-sustapena, enplegua, merkataritza eta turismoa
- Mugikortasuna eta espazio publikoa
- Lurraldea eta klimaren aldeko ekintza
- Herritarren segurtasuna
- Udal-administrazioa eta eraldaketa digitala

Bide publikoko jarduketei ez dagozkien programa eta inbertsioetarako aurrekontu-erreserba

Programaren edizio bakoitzeko aurrekontu osoaren % 20, gutxienez, bide publikoko jarduketei ez dagozkien beste programa eta inbertsio batzuetara bideratuko da, betiere bideragarritzat jotzen badira, honako kasu hauetan oinarrituta:

- Hautaketa-hurrenkeraren arabera, proposamen horiek (EZ BIDE PUBLIKOKOAK) programari esleitutako aurrekontu orokorrean sartzen badira, eta aurrekontuaren % 20 osatzen badute, herritarrek aukeratutako proiektuen behin betiko zerrendari jarraituko zaio.
- BIDE PUBLIKOKO lehen proposamenekin esleitutako aurrekontuaren % 80ra iristen bada, horien ondoren BIDE PUBLIKOKOAK EZ DIREN proposamenak

gauzatuko dira, betiere zerrendako hurrenkerari jarraituz eta gainerako % 20a osatu arte.

- BIDE PUBLIKORAKO EZ DIREN proposamen bideragarrien aurrekontu zenbatetsia aurrekontuaren % 20 teorikora iristen ez bada, gainerakoa BIDE PUBLIKOKO jarduketetara bideratuko da.

Auzo edo landa-eremu bakoitzeko egingo diren proposamenak mugatzea.

Gehienez ere bide publikoko 3 proiektu gauzatu ahal izango dira auzo/landa-eremu bakoitzeko, auzo/landa-eremuen arteko ekitatea lortzeko. Horrela, auzo/landa-eremu batean boto gehien lortu dituzten proiektuen artean 3 proposamen baino gehiago badaude, boto gehien jaso dituzten 3 proiektuak bakarrik gauzatuko dira.

Nork aurkez ditzake proposamenak?

Edonork, banaka edo taldean.

Ez da beharrezkoa hirian erroldatuta egotea.

16 urtetik beherakoek, heldu batek sinatuta.

NAN, AIZ, pasaporte eta/edo jatorrizko beste identifikazio-agiri batekin identifikatu ahal izango da.

Zenbat proposamen egin ditzake pertsona bakoitzak?

Pertsona, erakunde edo kolektibo bakoitzak gehienez proposamen bat aurkeztu ahal izango du bere izenean.

Pertsona kopuru jakin batek proposamen bera egin nahi badu, inprimaki komun batean egin ahal izango dute, eta, nahi izanez gero, proposamena babesten duen pertsona kopurua adierazi ahal izango dute.

Nola eta non aurkezten dira proposamenak?

- Online, Udalaren web-orrian dagoen inprimakiaren bidez. Inprimaki komun bat bete eta, bertan, proposamena zehaztuko da. Dokumentuak, argazkiak edo bideoak erantsi ahal izango dira. Erantsi daitekeen gehieneko tamaina adieraziko da.

- Aurrez aurre, **herriarrei laguntzeko bulegoetan** (gizarte etxeetan, San Martineko bulego teknikoetan eta San Antonio kalean).

Aurkezteko epea.

Herritarrek proposamenak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da gutxienez.

3. Proposamenen azterketa. Bideragarritasuna

Proposamenak jaso ondoren, sail edo zerbitzu eskudunari bidaliko zaizkio, haien bideragarritasuna balora dezan.

Aurkeztutako proposamen bakoitzari buruzko txosten bat egingo da, eta txosten horretan, proposamena teknikoki bideragarria den ala ez zehaztuko da. Txostena arrazoituta egongo da, eta beraz, erabaki bat edo bestea hartzeko arrazoiak zehaztuko dira. Ezin izango da errekurtsorik jarri bideragarritasun-txostenaren ebazpenari dagokionez.

Txosten hori web-orrian ikusi ahal izango da, eta proposamena aurkeztu dutenei ere bidaliko zaie.

Proposamen baten bideragarritasuna baloratzen den bitartean zalantzarik izanez gero, balorazioez arduratzen diren udal-teknikariak harremanetan jarri ahal izango dira, herritarren parte-hartze zerbitzuaren bidez, proposamena aurkeztu duen pertsonarekin edo pertsonekin, betiere beharrezkotzat jotzen bada.

Bozketa-fasera igarotzen diren proposamen bideragarriak web-orrian eta paperean argitaratuko dira.

Proposamenaren bideragarritasun teknikoaren zehazteko **irizpideak**:

- Udal-eskumena.
- Indarrean dauden udal-planetara egokitzea.
- Zuzenbidera egokitzea.
- Gehieneko aurrekontua: 300.000 €
- Interes orokorrari erantzuten dio, ez pribatuari.
- Udalak ez dauka planifikatuta hura gauzatzea.

Haztapena: bozketa-fasean, haztapen-irizpide batzuk ezarriko dira ekintza positiboko neurri gisa. Zentzu horretan, alderdi hauek errazten dituzten proposamenei irizpide bakoitzeko 0,10 puntu ematea proposatzen da:

- Belaunaldien arteko bizikidetzeta.
- Genero-berdintasuna.
- Aniztasun kulturala eta/edo funtzionala.
- Bazterturiko gizataldeak gizarteratzea.
- Jasangarritasuna eta ingurumena babestea.
- Eten digitalaren murrizketa.

Adierazle batzuk ezarriko dira irizpide bakoitzerako (irizpideak gai bakoitzean eskumena duten udal-teknikariek prestatu dituzte).

Haztapan-puntuazioa desberdina izango da, betetzen diren irizpideen arabera:

- Irizpide bat betetzen du: 1,10 puntu.
- 2 irizpide betetzen ditu: 1,20 puntu.
- 3 irizpide betetzen ditu: 1,30 puntu.
- 4 irizpide betetzen ditu: 1,40 puntu.
- 5 irizpide betetzen ditu: 1,50 puntu.
- 6 irizpide betetzen ditu: 1,60 puntu.

Bozketa-fasean, haztatutako proposamenak boto kopuruarekin biderkatuko dira, hala, puntuazio osoa kalkulatzeko. Oro har, boto 1 = puntu 1. Adibidez, ekimenak 3 irizpide betetzen baditu, 1,30 puntuko haztapena izango du, eta 100 pertsonak bozkatu badute, puntuazio osoa 130 izango da.

4. **Proiektuak aurkezteko, entzuteko eta eztabaidatzeko guneak**

Bideragarriak diren proposamenen artean, horiek sustatu dituztenei jendaurrean aurkezteko aukera emango zaie. Helburua da pertsona eta kolektibo desberdinen artean topaguneak sortzea, eta haien proposamenak entzutea, eztabaidatzea, osatzea eta/edo beste batzuekin batzea.

5. **Bozketak**

Nork bozka dezake.

Hirian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako pertsonak. Hirian erroldatuta daudela egiaztatzeko, kontsulta elektronikoko bat egin behar da biztanleen udal-errolan.

Non eta nola bozkatu.

- Online, Udalaren web-orriaren bidez, **[herritarren udal-txartel](#)** aktibatuarekin edo onartutako **[ziurtagiri digitalekin](#)** identifikatuta (BakQ, NAN elektronikoa, lizenpe eta abar).
- Aurrez aurre, **[herritarrei laguntzeko bulegoetan](#)** (gizarte etxeetan, San Martineko bulego teknikoetan eta San Antonio kalean).
- Adinekoen zentro soziokulturaletan.

NAN, AIZ, pasaporte eta/edo jatorrizko beste identifikazio-agiri batekin identifikatu beharko da.

Zenbat proposamen bozkatu daitezke.

Pertsona bakoitzak 3 proposamen bozkatu beharko ditu nahitaez.

Botoen balioa.

Oro har, boto 1 = puntu 1.

Haztatutako proposamenak: boto kopurua haztaperaren balioarekin biderkatuko da.

Proiektu bozkatuenak.

Boto gehien jaso dituzten proposamenak aurrekontu erabilgarria agortu arte gauzatuko dira.

Berdinketa gertatuz gero, haztatutako ekimenek hautsiko dute berdinketa.

Proiektuak gauzatzeko hurrenkera ez da boto kopurua izango (proiektu bozkatuenak ez dira lehenengoak izango), eta hurrenkera hori modu teknikoan zehaztuko da.

6. Prozesuaren balorazioa.

Jarraipena eta ebaluazioa ezinbesteko baldintza izango dira parte-hartze prozesuan, eta hobetzeko etengabeko aukera gisa ulertzen da. Etengabeko ebaluazioa egingo da, hiru maila hauetan:

- a) Balorazio teknikoa.
- b) Herritarren balorazioa.
- c) Balorazio politikoa.

7. Proiektuak itzultzea, gauzatzea eta jarraipena egitea.

Herritarrei programari eta fase bakoitzari buruzko informazioa emango zaie.

Boto gehien jaso dituzten proposamenak aurrekontu erabilgarria agortu arte gauzatuko dira.

Proposamenak proiektuetan zehaztuko dira, horiek sustatu dituzten pertsonen eta udal-teknikarien parte-hartzearekin.

Proiektuak egitean (proposamena haztatua izan ala ez), zeharkako udal-planak hartuko dira kontuan, eta jarraibide eta/edo ikuspegi desberdinak beteko dira: berdintasuna (generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegia), haurtzarora, gazteria, adineko pertsonak, euskara, gizarte-politikak, bizikidetzak eta aniztasuna, ingurumena eta abar.

Amaitzean, proiektu bakoitzaren aurkezpen- edo inaugurazio-ekitaldi bat egingo da horiek sustatu dituzten pertsonekin batera (hala nahi badute).

Proiektu bakoitza Vitoria-Gasteiz Hobetuz zigiluarekin identifikatuko da, herritarrek sustatutako ekimen bat dela azpimarratzeko.



Proiektu bakoitzaren egoera jendaurrean hedatu eta jakinaraziko da, amaitu arte, Udalaren web-orriaren bidez.